

Akastun mapak



Bidaiatzean mapak oso baliagarri izan daitezke kaleak topatu edota leku berriak ezagutzeko. Akatsik ba ote dute, ordea? Bada bai eta nahita egindako akatsak izan litezke, gainera. Nola da posible?

Argazkia: Pixabay



<https://labur.eus/Zz4WF>



Entzun Guillermo Roak mapa faltsutzeei buruz Ingurusfera saioan emandako azalpenak eta galderei erantzun.

1. Esatariaren hitzetan

- a) mapak kopiazea erraza da.
- b) artelanak eta mapak faltsutzearen helburua bera da.
- c) mapak faltsutzeko teknologia behar da.

2. Nolakoak izaten dira mapetan nahita sartutako akatsak?

- a) Nabarmen samarrak.
- b) Erabiltzaileentzat nahasgarriak.
- c) Ez dira sumatzen.



Argazkia: Pixabay

3. Baieztapen hauetatik zein da okerra? Egileek beraien lana babesteko

- a) akatsen berri ematen dute publikoki.
- b) mapen kopia zehatzak egiten dituzte.
- c) hutsak isilean mantentzen dituzte.

4. Aukera hauetatik zein izaten da egileek erabiltzen duten segurtasun-marka?

- a) Erantzun guztiak dira egokiak
- b) Beraien kabuz asmatutako toki-izenak.
- c) Akastun izenak.

5. Londresko mapa batean zenbat hanka-sartze daudela aipatzen da?

- a) Asko.
- b) Ehun.
- c) Izenen ehuneko hogeia.



ERANTZUNAK

1. a / 2. c / 3. b / 4. a / 5. a

TRANSKRIPZIOA

Artelanak faltsutzea, ba, ez da erraza. Arte handia behar da lan bat kopiatzeko edo imitatzeko eta benetakoa balitz bezala saltzeko, ez? Arte handia behar da baina zientzia ere behar da, teknologia behar da. Gaurko saioan horri buruz hitz egingo dugu: arte-lanak faltsutzeari buruz.

Baina horrekin sartu baino lehen, lehendabizi, utz iezadazue beste antzeko gai bati buruz hitz egiten. Antzekoa da baina ez berdina. Nolabait, alderantzizko gaia da.

Mapak: mapak kopiatzea, hori ez da zaila. Neketsua izan daiteke, zehaztasun handiz egin nahi baldin bada batez ere eta, zehaztasuna ezinbestekoa da zurea ez den mapa bat kopiatu eta saldu nahi baduzu, ez? Baina zaila-zaila, ez da zaila mapa bat kopiatzea. Koloreak pixka bat aldatu eta zurea balitz bezala saldu: aurrera! Noski, jatorrizko mapa egin duenak ez du hori nahi, bere mapa babestu egin nahi du kopiatzaileengandik.

Eta nola egiten da hori? Ba, akatsak nahita sartuta mapan. Batzuetan nahikoa da zuzen doan errepede batean existitzen ez den bihurtune txiki bat sartzea. Akatsak ez du arretarik jasotzen –ia inor ez da horretaz konturatzen, ez diolako erabiltzaileari trabarik egiten apenas- baina norbaitek mapa kopiatzen badu, ja! akatsa ere kopiatuko du eta maparen egileak harrapatu egingo du. Bai dakielako akatsa non bilatu, noski!

Tira, hori da teoria, oso ondo dago baina horrelakorik bai al dago? Ba, bai! Badaude akats, nahita sartutako akatsak dituzten mapak. Batzuetan akats ezkutuekin eta beste batzuetan akatsak aitortuta daudela, gainera. Grezian adibidez, Nick & Johan Phot's argitaletxearen Atikako errepedeen mapa ospetsu batean, ohar batek dio kale akastunak daudela nahita marraztuta. Hori kopiatzaileek jakin dezaten aldeztu aurretik.

Mota askotako akatsak erabiltzen dira horretarako, ez bakarrik errepedearena: kasu batzuetan gaizki idatzitako izenak dira edo asfaltatu gabeko bide bat asmatuta edo izenik gabeko toki bati izena emanda... aldaketa txiki-txiki bat izan daiteke, besterik ez, ez? Baina nahikoa da egilearen segurtasun-marka hor uzteko: taka!

BBCko programa batean, 2005ean, esan zuten Londresko A to Z mapan –oso mapa ospetsuak dira turistentzat eta hangoentzat eta oso erabiliak dira- ba, BBCn esan zuten Londresko mapa horretan ehun akatsetik gora daudela sartuta nahita.

Tira, sartu akats bat zure mapan nahita eta kopiatzaileak harrapatuko dituzu.